

B

BARREN

Eman euskara elkarri

TOKIKOM



Etxean, sailkatu zaborra gaika

Eman izena edukiontzi
marroia erabiltzeko:
943 741 050 edo arreta@elgoibar.net



Merezi zaban!

asteburua

OSTIRALA, martxoak 15

- 20:00 Ekitaldi nagusia Herriko Antzokian
- 21:30 Karparen irekiera
- 21:45 Afari-luntxa (doan)
- 22:30 Etxeko en goxotasuna: kantuz girotuko dugu afalostea

LARUNBATA, martxoak 16

- 13:30 Erakusketa gidatua
- 14:30 Bazkari herrikoa (helduen eta umeen menua) *
- 15:30 Umeen ginkana: Elgoibarko Izarra ezagutzuz
- 18:00-20:00 Ezten giro! erromeria
- 21:00 Ogitartekoak
- 23:00 Xabier Solano eta DZ (Esne Beltza)

* Bazkaritarako tiketak erosteko:
Elgoibarko Izarraren bulegoan,
BARRENEN edo
www.elgoibarkoizarra.com atarian.
(Martxoaren 8ra arte)



Laguntzailea:



ELGOIBARKO
UDALA

elgoibar
biZi-biZiXal

Antolatzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Elgoibar en Galtzer Etxe



Esti
Gonzalez

Kaixo, Miren!
Gaur da gure estreinu eguna, gure herrikide diren Don Anjel eta Iñigori erreleboa hartzera gatoz. Zozo eta bele bihurtuko gara, alegia, denboralditxo baterako. Gogoz eta ilusioz hartu dut erronka berri hau, izan ere, gauza asko partekatzen ditugu: mendarorarrak

gara, emakumeak, langileak, amatasuna denbora berdinean bizitzen ari gara... Guzti honek azken urteotan hainbat gairi buruz elkarrekin hitz egiteko aukera eman digu, eta orain, atal honen bitartez iritzi horiek kanpora zabaltzeko aukera eskaintzen digute. Estreinu eguna ere nolabait seinatua tokatu zaigu: Martxoak 8. Oraingoan gaia emana datorkigula dirudi, ezta? Ez naiz egia esan inoiz egun seinatatu hauen aldekoa izan, aldarrika-

“Genero berdintasun kontu hauetan, aurreraka ala atzeraka goaz?”

penak eta aurrerapausoak eguneroko jarreretan azaltzen direla uste baitut. Baina ezinbestean hausnarketa bat datorkit burura: Genero berdintasun kontu hauetan, aurreraka ala atzeraka goaz? Badirudi, itxuran, kanpotik begiratuta, azalean, aurreraka goazela, baina gero batzuetan, funtsean, gure barnean, gauza gutxi aldatu direla ematen du. 1993. urtean, duela 20 urte, Donostiako Ingeniaritza Eskolan hasi nintzenean, komun bakarra zegoen emakumeentzat. Gauza horiek aldatu dira, noski!. Baina, benetan hausnarketara bultzatu ninduen tarte bat gogoratuko dizut. Nire semeak, duela 2 urte, 3 urterekin alegia, neskena zelakoan jostailu arroxka bat nahi ez zuela esan zidanekoa. Inguruko guraso batzuek nire semearen jarrera berretsi zuten, zuzen zegoela esanez. Gauza horiek erakusten didate gure barnean oraindik lan asko dagoela egiteko, oinarriak ez direla aldatu. Eta gogora dezagun, gure haurrak direla etorkizuneko landareen hazia, hurrengo belaunaldietan aldaketa eman dezaketenak. Ez al da horrela?



Miren
Vives

Bai, Esti. Halaxe da. Niri, nolabaiteko berdintasunean bizi izan naizela iruditu izan zait duela gutxira arte: ez dut neure burua inoiz feministatzat izan, ez dut horren beharrik izan. Baina oraindik ere etxeko lanen banaketa desorekatuaz gain, lan berdinatutik gutxiago ordaintzen digute eta gure amatasun eta lan asistentzial ordaindugabea etengabe justifikatu behar ditugu, gizarte baten ongizaterako funtsezkoak diren arren. Eta zer diote gure umeek honi buruz?

Gure bi alabak txikiagoak zirenean Hartz Txiki ikusten genuen etengabe. Telesail horretan maitasuna, errespetua eta lagunartea dira oinarri. Baina Hartz Txikiren aita ia beti arrantzan dago eta ama beti dago etxean. Vickie Bikingoaren txanda iritsi zen iaz: abentura polit eta arriskutsuak bizi ohi ditu Vickie-k bere aitarekin. Amak herrixkan itxaron ohi du. Duela sei hilabete Asterix eta Obelix-en komikiak irakurtzen hasi ginen eta, hemen ere, emakumeak bigarren plano batean ageri dira.

“Oraindik ere emakumeok geure lekua hartu behar dugu gizartean”

Egizue froga bat: aukeratu edozein film eta egin itzazue Bechdel Test-aren hiru galderak: Gidoian hitzak dituzten pertsonaien artean agertzen al dira gutxienez bi emakume? Elkarrekin hitz egiten al dute? Elkarrizketa atsegin duten mutilari buruzkoa baino zerbait gehiago al da? Emaitzek harritu egingo zaituzte.

Oraindik ere emakumeok geure lekua hartu behar dugu gizartean eta egiteko asko geure esku dago. Izan ere, gure alabek dioten bezala “printzesak izan arren, abenturak bizi nahi ditugu”. Hori bai, olinpiar jokoetan parte hartu eta erromatarrek jipoitu ondoren etxeratzean, panpin guztiei afari goxoa emango diete lotara sartu aurretik. Gauza batek ez baitu bestea ezeztatzen, aberasten baizik.

ESKERTZA

CARMELO IRIONDO ZULOAGA



2013ko martxoaren 6an hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA
ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA
Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel
Ugarteburu, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodríguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel
Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-
1855


Agitaratzailerak:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Ez da Vasco

'El Diario Vasco'-k 1934an kaleratu zuen bere lehen alea. Aldizkari honen sortzaileen artean politikari eta burges monarkikoak zeuden, eta 1936ko altxamendu nazionalistaren alde agertu ziren.

Vocento Taldea da aldizkari honen jabea, Intereconomia telebista katearena bezalaxe, adibidez. Vocento Taldearen aitzindari 1910ean sortutako *El Pueblo Vasco* egunkaria izan zen. Azken hori 1938an Falangearen egunkariarekin batu zen (*El Correo Español*) eta 1949an batu zitzaien *El Diario Vasco*. Gaur egun familia berdinak daude Vocento Taldearen atzean beste dozenaka akzionistekin batera.

Gipuzkoan gehien irakurtzen den egunkaria *El Diario Vasco* da, baita Interneteko orririk bisitatuena ere (*Facebook* eta *Tuenti* bezalako web orrien aurretik). Horrez gain, bere irakurleen joera politikoan eta egunkari beraren ideologiaren erlazioan desfase gehien aurkezten duen egunkaria da. Izan ere, irakurle gehienak PNV eta Bilduko oinarri soziala dira: euskal nazionalistak guztiak, eta hortik asko kutsu ezkertiarrekoak gainera (*El Diario Vasco* espainola eta eskuindarra bada ere).

El Diario Vasco adibide interesgari bat besterik ez da, baina ez da arazoaren kausa. Arazoa jabetza pribatuak dakarren botere kontzentrazioa da. Gehien kontsumitzen diren komunikabideak esku gutxi batzuetan pilatzen dira: enpresari handienetan. Komunikabideak ez dira negozio bat gehiago, beste negozioak posible izateko aparatu politiko-ideologikoak baizik; EH desnazionalizatzen eta "eskuinarazten" digute, gainera.

Bide batez, martxoaren 13an, asteazkena, 20:00etan Gaztetxean gai honi buruzko Autoformakuntza saioa izango da, eta hileroko ezberdinen ingurukoa. Ongi etorriak izango zarete; izan ere, egunkariak irakurri ikastea baino haratago informatzea komeni da.

Aimar Uribealago Urzelai

'Nitro' katea Altzolan

Altzolan ez zela *Nitro* telebista katea ikusten adierazi zuen joan zen asteko BARRENEN irakurle batek, eta horren inguruko informazioa osatu nahi du Altzolako bizilagunen Zubibai elkarteak.

Zubibai urteak daramatza, besteak beste, telefonia, telebista eta gas zerbitzuak Altzolara egokitzen. Ez da beti erraza izaten eta emaitzak ia inoiz ez dira etortzen guk nahi bezain azkar.

Telebistari dagokionean, 2009. urtean Zubibai eskatuta, Bailegoitiko errepikagailua TDTra egokitu zuten. Orditik harremanetan gaude Udalarekin eta Itelazpirekin (komunikazioetarako Euskal Agentzia) Altzolan telebista kanalaren eskaintza eguneratzeko, eskaintza hori 4G teknologiak baldintzatuta dagoelako gaur egun. *Nitro* ez da Altzolan ikusten ez dugun kanal bakarra. Askoz gehiago dira, eta gutxienez sei urte daramatza Zubibai lanean Altzolako bizilagunek gutxienez gutxienez Elgoibarko bizilagunek dituzten zerbitzuak izan ahal izateko.

Horretarako, ezinbestekoa da bizilagun guztien inplikazioa. Gai honen inguruko informazio gehiago eskuratzeko edo Altzola auzoari buruzko beste gairen bati buruz gehiago jakin nahi izanez gero, jarri gurekin harremanetan: altzola.zubibai@gmail.com

Altzolako auzotarren

Zubibai elkartearen zuzendaritza

Eskerrik asko

Azken zapatuan, martxoak 2, Logroñoeko espetxera joan ziren hainbat elgoibartar, *Bateragune auzian* zigortutako presoaren askatasuna eskatzera. Ekitaldi polita izan zen, eta lerro hauen bidez, gure esker ona adierazi nahi genizueke ekintza hori prestatzen eta arrakastaz burutzen lagundu diguzuen guztioi. Bi autobuskada Elgoibartik. Goian utzi dugu, berriz ere, elgoibartarrek justiziarekin duten konpromisoa.

Arnaldo askatu herri ekimena



Albitxuriko in- dustrigunea:

“Albitxuriko in-
dustriguneko
aparkalekuan zaborrez be-
teriko edukiontzi bat dago
aspalditik. Eskertuko genu-
ke hori hustea, mesedez”.



Hilabete inguru bada
ume-aulkia trenbide ingu-
ru horretara bota zutene-
tik: “Orain dela hilabete in-
guru ume-aulki bat bota
zuten trenbide gaineko
berdegunera, eta oraindik
hantxe dago. Apur bat
mugitu dute lekuz, baina
ez dute erretiratu. Uste
dut nahikoa denbora
egon dela eta badela or-
dua ume-aulki hori zabo-
rretara botatzeko. Eta he-
rritarrei eskatu nahi diet
zaborrak zakarrontzira
botatzeko, mesedez. Es-
kerrik asko”.

Ubitarte inguruan katuei jaten ematen diete: “Ubitarte eta Santa Ana inguruan katuei jaten ematen diete, eta azkenaldian, asko
ugaritu dira katuak. Eskertuko genuke horrelakorik ez egitea. Mila esker”.



Mila esker Idotorbe auzoan txerri-boda antolatzeaga- tik:

“Idotorbe auzoan txerri-
boda egin zuten otsaileko az-
ken asteburuan. Aintzina oso ohikoa
izaten zen baserrietan txerri-boda egi-
tea, baina ohitura hori galdu egin da
azken urteotan. Idotorben, baina, as-
paldiko ohitura hori berreskuratu dute
aurten. Etxean, mimo handiz hazitako
txerria jan zuten auzotarrek hango el-
kartean. 60 kilo txorizo, saheski, odo-
loste eta solomo jan zituzten, han bildu
ziren 60 bat lagunak. Eskerrik asko la-
nean jardun zuten auzotarrei eta baita
ere bazkaltzera etorri ziren guztiei”.



‘Bateragune auzian’ kartzelatutakoak aske lagatzeko eskatu dute dozenaka lagunek Logroñoko kartzela atarian

‘Bateragune auzia’ Euskal Herriko askatasun ezaren irudia dela salatu dute

Arnaldo Askatu, politika askatu herri ekimenak eta *Bateragune auzian* kartzelatutako bost preso senideek deituta, berrehun bat lagun batu ziren joan zen zapatuan Logroñoko kartzela aurrean egin zuten ekitaldira. Elgoibartik eta beste hainbat lekutatik joandako lagunek gain, euskal politikagintzako ordezkariak zabala ere bildu zen Logroñon: Fernando Barrena, Hasier Arraiz, Joseba Permach, Rufi Etxeberria, Karmelo Landa eta Aitor Bezares Surtutik, Rebeke Ubera eta Patxi Zabaleta Aralar taldeak, Oskar Matute Alternatibatik, Alberto Unamunzaga EAtik, Mertxe Colina ABtik, Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusia eta Jone Goizelaia *Bateragune auziko* abokatuetakoa bat. Politikariek gain, Paul Rios Lokarriko koordinatzailea, Jesus Uzkudun CCOO sindikatuko ordezkari ohia, Martxelo Otamendi *Berria* egunkariko zuzendaria eta Iñigo Soto *Gara*-ko zuzendaria ere ekitaldian izan ziren, besteak beste.



Debabarrenako Lanbide Heziketako azoka egingo dute Eibarren

Ostegunean zabalduko da Abian, Debabarrenako Lanbide Heziketako azoka, Eibarko Armeria Eskolan, eta hiru egunez eskualdeko LHko eta Ingeniaritzako zentro guztiek parte hartuko dute: Eibar eta Ermua-Mallabiako PCPlek, Debako Arte Eskolak eta Trikak-Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroak. Ikasle, guraso, irakasle, orientatzaile, langabetu eta bizitza profesionala berbidertu nahi duten pertsonen zuzenduta dago azoka; hau da, Lanbide Heziketan interesa duten guztiei, eta horiei eskualdeko eskaintza formatiboa aurkeztea eta lanaren eta Lanbide Heziketaren arteko harreman zuzena agertaraztea da azoka antolatu dutenen helburu nagusia. Hiru egunez egongo da zabalik azoka, ostegun eta ostiralean goiz eta arratsaldean (10:00 - 14:00 eta 16:00 - 19:00) eta zapatuan, goizez (10:00 - 14:00). Sarrera doan izango da. Argibide gehiagorako: 943 820 110 (Debegesa).

Lanbide Heziketako jardunaldiak, Elgoibarren

Lanbide Heziketaren astea antolatu du Elgoibarko Udalak hilaren 13tik apirilaren 26ra bitarteko. Martxoaren 13an, Lanbide Heziketari buruzko saio bat izango da langabetu, guraso eta ikasleentzat, Meka-Arreiturreko areto nagusian, 19:00etatik 20:00etara. Era berean, lanbide heziketaren inguruko tailerrak ere egingo dira. Horrez gain, Elgoibar Ikastolak (apirilak 22 eta 23) eta Arreiturre Institutuak (apirilaren 24 eta 26an) bisitak egingo dituzte Danobat enpresara. Guzti honekin lotuta, ate irekien egunak ere antolatu dituzte IMHn eta Mekan. Apirilaren 20an, maiatzaren 15 eta 25ean eta ekainaren 12an IMHn, eta maiatzaren 17an Mekan.

Ingeniaritza eskolako diploma banaketa

Ingeniaritza Dualeko hamalagarren promozioiko ikasleek diplomak jaso dituzte. Diploma jaso duten 26 ikasleek Frantziako CESI erakundeari atxikitutako IMHren Ingeniaritza Dualaren titulua eskuratu dute. Cristina Uriarte Hezkuntza Sailburuak banatu zituen diplomak.



Izenak **Joxe Idoeta eta Xabier Aierdi**



Joxe Idoeta eta Xabier Aierdi bikote mendararra Euskal Herriko mus txapelketako finalerako sailkatu da. Mendaroko kanporaketa irabazi ostean, otsailaren 23an jokatu zuten Gipuzkoako txapelketa Seguran, eta final nagusirako txartela eskuratu zuten. Bihar jokatuko dute finala, Agurainen (Arabai). Manuel Salegi eta Pedro Garate elgoibartarrek ez zuten lortu aurrera egiterik.

Protestak **Adinekoen egoitzak greban**

Hiru egunez greba egitera deitu zituzten sindikatuek adinekoen egoitzetako langileak, eta Elgoibarraren bat egin zuten deialdi horrekin. San Lazaro egoitzan eta Eguneko Zentroan gutxieneko zerbitzuak egon ziren martxan otsailaren 27an, 28an eta martxoaren 1ean. Egoitzetako eta eguneko zentroetako langileen hitzarmen kolektiboaren negoziazioetan izandako adostasun falta izan da grebaren arrazoia.



Zenbakia **10.000 euro genero ikuspegiaren alde**

Udal aurrekontuei egindako emendakinetan Bilduelgoibarrek proposatu zuen 10.000 euro erabiltzea genero ikuspegia diru-laguntzetan txertatzeko, eta orain, proposamen bat aurkeztu du aurrekontuetan onartutako egitasmo orokor hark Udalak kudeatzen dituen diru-laguntza guztietan eragina izan dezan. Proposatzen dituzten neurriak Udalak deialdi bidez banatzen dituen laguntzetan zein hitzarmengintzari lotutakoetan aplikatzekoak dira, eta araudian kontuan hartu beharreko baldintza, irizpide eta betebeharrak batzuk ere zehazten dituzte.

Bestalde, parekidetasuna sustatzeko aurreikusita dauden 10.000 euro kirol arloko diru-laguntzetan erabiltzea proposatu dute. Kirol klubei diru-laguntzak banatzeko irizpidea aldatzea proposatu dute. Gaur egun klub guztiak bost taldetan banatzen dira (lizentzia kopurua, taldeak maila ezberdinetan izatea, Eskola Krola elkartearekin lankidetzat hitzarmena izatea...). Irizpide horiek erabiltza, klubak bost taldetan banatzen dira, eta bakoitzak talde horretarako aurreikusita dagoen diru kopurua jasotzen du. Bilduk, baina, uste du maila bakoitza bitan banatu behar dela genero ikuspegia aintzat hartuta, eta horren arabera kalkulatu behar direla klubei dagozkien diru-laguntzak. Hau da, azpitalde batean sartu beharko lirakeela genero ikuspegitik ezarritako baldintzak betetzen dituztenak, eta bestean betetzen ez dituztenak, eta bigarren horiek diru-laguntza txikiagoa jaso beharko luketela.

Parot doktrinari buruzko hitzaldia antolatu dute hilaren 14rako

Parot Doktrinari buruzko hitzaldia antolatu du Herrirak martxoaren 14rako, *Bizi osoko espe-txe zigorrik* ez izenburupean. Ainhoa Baglieto abokatua, Isidro Gabirondo senidea (Juan Mari Gabirondo Agote, doktrina ezarria duen presoaren senidea) eta Nagore Garcia Herrirako kidea izango dira hizlariak. 19:00etatik aurrera izango da hitzaldia, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Era berean, giza katea egingo dute datorren barixakuan, Parot Doktrina salatzeke.

Toletxeko obrak hilabetez atzeratuko dira

Eguraldi txarraren ondorioz hilabetez atzeratuko dira Toletxeko pasabidea egiteko obrak. Hori dela eta, obrak apirilaren amaierarako bukatzea aurreikusi dute Udal agentariak. Pasabide honi esker Pedro Muguruza eta Gabriel Krutzelaegi kaleek bat egingo dute.

MEKako hamasei ikaslek atzerrian egingo dituzte praktikak

Orain dela hamabost urte hasi zen Meka Lanbide Eskola Leonardo Da Vinci eta Erasmus programen bitartez ikasleak atzerriara bidaltzen praktikak egitera. Ikasturte honetan, hamasei ikasle joango dira Finlandia, Malta, Irlanda, Italia eta Alemaniara, praktikak egitera.



KORRIKA BADATOR



Eguenean hasiko da Andoainen Korrika, euskararen aldeko lasterketa, eta 11 egunez gelditu barik, Euskal Herria zeharkatuko du, hamazortzigarrenez. Elgoibarrera hilaren 20an iritsiko da, Maltzagatik (20:27). Korrika 18k euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren milaka eta milaka lagun omenduko ditu, Euskaladari izateko ahaleginean euskara ikasten eta praktikatzen ari diren guztiak, eta horietako bi elkartu ditu BARRENEK: Pilar Herre-ro AEKko ikaslea eta Maria Garcia Debabe Udal Euskaltegia.

AEKkoak lekukoarekin, duela bi urteko Korrikan.

Urduri datozela aitortu dute sartu eta bat, baina begiratu batean ez zaie nabari. Gai dira euskara ulertzeko, eta elkarizketa euskaraz egiteko erronka onartu dute. Gauza asko dituzte esateko, baina, eta azkar esan nahiak tratatzen ditu. “Hemen ez daukat pentsatzeko denborarik eta euskaraz eta erdaraz egingo dizut”, desenkusatu da Maria Garcia. Hasierako lotsak gaindituta, baina, hasi dira euskaraz, nor bere mailan. Egiten ari diren ahaleginagatik omenduko ditu Korrika 18k, azken batean ahalegin horrekin euskaraz bizi ahal izatea ahalbidetzen eta elkarbizitzarako aukerak sortzen ari direlako.

Poztu ditu Korrikak egiten ari diren esfortzua errekonozitzeak. Pilarrek hamar urte daramatza euskara ikasten, eta laugarren urtea du Ma-

Eguenean hasiko da Korrika eta hilaren 24an bukatuko da, Baionan

riak, baina ez diete urteei garrantziarik ematen, jakin baitakite bide luzea dutela egiteko. “Nik garbi daukat hizkuntza menperatzen duela pentsatzen duenak ere beti duela zer ikasia, eta horregatik ezin dugu etsi”, adierazi du Pilarrek. Baietz dio buruarekin Mariak. 4. urratsean dago, eta hitz egitea kosta egiten bazaio ere, kalean euskaraz entzuten ditueni ulertzeak izugarriko poza ematen diola aitortu du. Orain 30 bat urte erabaki zuen berak euskara ikasi behar zuela eta hasi ere egin zen Ikastolan ematen zituzten eskoletara joaten, baina

eguneroko lanek ez zioten nahi beste tarte uzten eta laga egin zuen. Orduetik, hor izan du arantza moduko bat. “Erderaz esaten den bezala, gainditu gabeko irakasgaia zen niretzat. Euskaraz bizi nahi nuen, euskaldunekin harremandu”. Hala, behin semeak hazita, Debabe Udal

Euskaltegian eman zuen izena. Eta ez da damutu. “Betidanik ezagutu nahi izan dudak kulturaren beste zati bat ezagutzen dut, eta adibidez, kalean euskaraz idatzita dauden kartelak ulertu ahal izateak poz handia ematen dit”, gehitu du.

“Euskal kulturaren murgiltzeko aukera eman dit euskarak”, aitortu du segidan Pilarrek. Ama euskalduna zuen Pilarrek, baina gaztelaniaz egiten zion berari, eta, ondorioz, dakiena gerora ikasitakoa du. Sortzez donostiarra da, eta orain hogei bat urte Elgoibarrera iritsi zenean hemen topatu zuen “giro eskaldunak” harritura laga zuela aitortu du. “Jendea begirako lana izan dut beti, eta ikusten nuen euskaldun askok ahalegin izugarria egin behar izaten zutela nirekin hitz egiteko. Errespetua falta niela sentitu nuen, eta horregatik erabaki nuen AEKn hastea”. 50 bat urterekin hasi zen euskara ikasten eta aitortu du epe muga bat ere jarri ziola bere buruari, erdi txantxetan. “65 urte bete arte euskara ikasten jarraituko nuela esan nion lagun bati, eta 65 urterekin hasiko nintzela euskaraz hitz egiten. Zorionez, aurretik hasi naiz”. Eskolaz kanpo, saiatzen da dakienarekin euskaraz egiten, baina onartu du lotsak gaztelaniara pasatzera bultzatzen duela zenbaitetan. Garai batean eskolako ezagun batekin joaten zen paseatzera, euskaraz hitz egiteko, eta izugarri ikasi zuela esan du. “Hitz egin behar da. Sekulako burukominarekin bueltatzen nintzen etxera ez zidalako lagatzen hitz bakar bat erdaraz esaten, eta niri izugarri kostatzen zitzaidalako esan nahi nuena euskaraz ondo adieraztea, baina merezi izan zuen”.

“Martiri antzekoak garela esaten zuen nire lagun batek, eta behar-bada arrazoiak zuen”. Astelehenetik eguenera, goizero joaten da bera euskaltegiara, esfortzu txikiagoa eginda gustura egingo litzuzkeen beste gauza batzuk lagata, baina behin laugarren urratsera iritsita, behin euskara ulertzeko gai izanda, ez dago amore emateko. Deklinabideak, aditz-taulek eta nominalizazioek hamaika buru-hauste ematen diotela esan du, baina gero eta ilusio handiagoarekin ari dela dio. Hasi da euskara jakitearen onurak igartzen eta gelan “talde-giro bikaina” dute, gainera. Ikasten jarraitzeko indarra ematen dio horrek. Helburuak ere jarri ditu: “Orain ez naiz gai, baina bi urte barru-edo joan nahiko nuke barnetegiren batera, pare bat hilabeterako. Hor ikasten da benetan euskara”.

Ohiturak

Euskara ikasten duten askorentzako zailena ohiturak aldatzea dela nabarmendu dute biek. “Nire senarra, esaterako, euskalduna da, baina erderaz ezagutu genuen elkar eta kosta egiten da ohitura hori aldatzea”. Antzerako zerbait gertatzen zaio Mariari etxean. Semeek badakite euskaraz, baina gaztelania izan da beti etxe barruko hizkuntza, eta kosta egiten zaie. Hala ere, etxerako lanetan laguntzen diotela dio. “Galdezka hasten natzainenean ‘ama, hori horrela da, baina ez galdezu zergatik’ erantzuten didate askotan. Euskaraz dakizuenok ez zarete konturatzen, jakin dakizuelako, baina aditzak eta horiek... Ez da errazal. Eta hori nik beti esan dudala euskara oso hizkuntza logikoa dela. Izugarri estructures polita du, gainera. Hala ere, pazientzia eta konstantzia handia eskatzen du euskara ikasteak”. Bitxia egiten bada ere, gramatika ikaragarri gustatzen zaiela diote batak zein besteak: “Gelan esan dudanetan zorrotz hartu naute ikaskideek”, bota du Pilarrek. Gramatikaz ari direla esan dute euskara ikasten diharduten askok beste hiz-




kuntzekin alderatzen dutela euskara, eta hori egin behar den azkena dela uste du Mariak. “Besteak alde batera laga, eta bete-betean jarri behar zara euskara ikastera, ‘hau zergatik da horrela’ horrenbestetan galdetu gabe.

Ezinik ez dago, hala ere. “Nahi duenak ikasten du. Euskal Herrian bizi gara, eta hemen ez bagara euskara ikasteko gai... Txinera ere ikasten dute hemen, inork ez duenean hitz egiten. Nola ez dugu ikasiko bada euskara”, nabarmendu du Pilarrek.

Apustua egin dute, eta ilusioz ikusten zaie, indartsu. Euskaraz bizi nahi dute, jakin badakitelako euskal kultura bere horretan ulertzeko oso lagungarria dela hizkuntza bera jakitea. Maria eta Pilarrek bakarrik ez. Zeresana eta zeregina denok daukagula aldarrikatuko du Korrika 18k. Dakienak ikasi nahi duenari irakatsi, ulertzen duenak hitz egiten duenari erabiltzeko aukera eman, agintariekin herriar orori ikasteko bideak erraztu... Horregatik guztiagatik *Eman euskara elkarri* oihu eginez euskararen alde korrika irteteko prest daude gaurko elkarriketatuak ere. Aurrez ere parte hartu izan dute euskararen aldeko lasterketan, dela korrika edo korrika ari direnak animatzen, baina oraingoan arrazoi gehiagorekin, ez direlako alferrik 18. Korrikako protagonistak. “BARREneko erredakzio aurrean elkartuko gara, elkarrekin korrika egiteko”, bota dio Mariak Pilarri. “Kohesiorako lehengaita eta tresna da euskara”, dio AEK-k Korrikarako prestatutako webgunean. Bi lagun behintzat batu dituzte.

Maria Garcia eta Pilar Herrero euskara ikasleak Korrikako petoak jantzita.



ETXE KALERATZEAK STOP

Etxe kaleratzeak eteteko taldea sortu dute Debabarrenean, kaltetuei babesa eman eta elkartasuna adierazteko. Elgoibarko eta Mendaroko kideak ere sartu dira talde horretan, eta horietako birekin hitz egin du BARRENEK. Coro Gonzalez eta Edu Zubiaurrek gai honetan egiteko asko dagoela adierazi dute, eta herritarrei dei egiten diete taldera batzeko. Martxoaren 20an informazio bilera bat egingo dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etatik aurrera.



Edu Zubiaurre eta Coro Gonzalez Debabarrenako taldekoak.

Kaleratzeak Stop Debabarrena taldea

Orain dela pare bat hilabete sortu zuten taldea, eta duela bi-hiru aste sartu ziren taldean Coro Gonzalez eta Edu Zubiaurre. Lan handia dute egiteko, eta egitasmo honetan lan egitera deitu nahi dituzte herritarrek. Denetariko jendea dago taldean, baina argi utzi nahi dute gauza bat: ez dira baztertutako talde bat, ezta baztertuen talde bat ere. Taldekoak ez daude etxea galtzeko arriskuan, baina badakite edonor iritsi daitekeela egoera horretara eta hau guztia amaitzeko zerbait egin behar dela uste dute. Egoera honekin "nazkatuta" daude, eta irtenbideak nahi dituzte.

Taldearen zereginak

Kaltetuei babesa eta laguntza eskaintzea da taldearen zeregina. Informazioa eman, banketxeetara lagundu eta etxe kaleratzeak gertzea, alegia. Taldean badute bankuan lan egindako pertsona bat eta hark ematen die hipotekei buruzko informazioa. Aholkularitza juridikoan laguntzeko jendea behar dute, legeei buruz dakitenak.

Debabarreneko egoera

Debabarrenean badaude etxe kaleratze kasuak. Elgoibarren bi kasu ezagutzen dituzte, eta Mendaron ere badago beste kasuren bat. Gehienek etxe barruan gordetzen dituzte arazoak, eta ez dute euren egoera jakitera eman nahi, baina taldekoen urtez, hori ez da bidea. Arrisku egoeran dagoen jendeari esan nahi diete lehenbailehen jartzeko taldearekin harremanetan, tramitazioa garaiz hasiz gero etxe kaleratzeak geratzeko aukera badagoelako, eta irtenbideak aurkitu daitezkelako. "Epeak gaintitzen direnean, baina, protesta egitea da aukera bakarra", esan du Corok.

Udalen eta banketxeen jarrera

Moziok aurkezten ari dira bailarako udaletxeetan, plenoetan onartu ditzaten. Eibarren onartu zuten eta Mendaron ere bai, baina EAJK bere bide propioa hartu du gai honetan, eta Elgoibarko Udalaren erantzunaren zain daude oraindik.

Banketxeen kasuan, zaratarik ez dutela nahi adierazi dute taldeko kideek. "Horrelako taldeen aurrean beldurtu egiten dira. Ez dute zaratarik nahi, baina guk borrokan jarraituko dugu. Kutxabankek oso jarrera itxia dauka etxe kaleratzeen aurrean. Gipuzkoako hipoteken %80 inguru ditu, eta oso zorrotza da gai honetan. Banketxe euskalduna da, eta esan behar dugu jatorri espainiarreko zenbait banketxek jarrera hobea erakutsi dutela", adierazi dute.

Etorkizunera begira

Langabezia ikusten dute arazo nagusi. Orain dela urte batzuk etxebizitzaren prezioa asko handitu zen, eta urte askotarako hipotekak sinatu zituen jendeak. Orduan bazuten lana, baina orain jende asko langabezian dago, eta hipotekari aurre egiteko arazoak dituzte.

Aurreikusitako ekintzak

Eibarko azokan informazio mahaia jarriko dute zapatuan, eta Elgoibarko merkatarien elkarteko arduradunarekin hitz egiteko asmoa dute, dendetan elkarteko kartela jartzeko. Horrez gain, hilaren 20an informazio saioa eskainiko dute Kultur Etxean.

Kontakturako

Etxea galtzeko arriskuan daudenen taldearekin harremanetan jartzeko: 627 934 675 / stopdesahuciosbajodeba@gmail.com


Erretratu zaharra**1966**

1966an Debako hondartzan jokatu zuten txapelketan ateratako argazkia da hau. Elgoibarko Rayo de San Pedro taldea ager-
tzen da erretratuan. Gogora ditzagun zeintzuk diren gazte horiek:


Zutik: Juan Martin, Ruiz, Jesus Garcia, Juan Padilla, Roberto Martin, Víctor Barberena eta 'Madriles' entrenatzailea (†).
Makurtuta: Marcos Acosta, Alex Martin, Antonio Mateos, Felipe de Castro eta Javier Rodriguez.

II. URTEURRENA**CRESCEN ZABALA ARANBERRI**

2011ko martxoaren 9an hil zen, 78 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak
9, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztatik.

**ESKERTZA****ANTONIO PUYADENA GARMENDIA**

2013ko martxoaren 4an hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Giro onean joan dira Aingeru Guardako jaiak

Mendaroarak ez zuten hutsik egin Aingeru Guardakoarekin egindako zitara, eta jendetza handia batu zen astebururako antolatutako ekintzetan. Zapatuan, Arnoateko Igoera jokatu zuten hogeita sei lagunek, eta Josu Uriarte markinarra gailendu zen, 20:34ko denborarekin. Uriartek errekorra ezarri zuen gainera, Oier Ariznabarretak orain bi urte jarritako marka zortzi segundotan onduta. Joseba Plaza markinarra sailkatu zen bigarren eta Iñigo Ortuoste elgoibartarrak egin zuen hirugarren. Domekan, Aingeru Guardako ermita bueltan ospatu zuten zaindariaren omenezko jaiak. Ohi legez, bertsolariak, herri kirolak eta musika izan ziren, eta eguzki epela lagun, maki-na bat jende batu zen Plaza auzoko jaira. Ondoren, haletako askok elkarrekin bazkaldu zuten Aizpe gastronomia elkartearen, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasorekin egin zuten bertso bazkarian. Argazki gehiago: www.ElgoiBARREN.net helbidean.



Juan Jose Zulaika hil da, Boiseko Oinkari Dantza Taldeko pandero jolea

Dolu egunak izan dituzte Boiseko (Idaho, AEB) euskal diasporan, Juan Jose Zulaika Boiseko Oinkari Dantza Taldeko pandero jolearen heriotza dela eta. Simon Zulaika Bergaretxe eta Flora Ziaran Zubiaurreren seme Juan Jose Zulaika 1945. urtean jaio zen Mendaroko Sarobe baserrian, eta 23 urte zituela emigratu zuen Ameriketako Estatu Batuetara, Kaliforniara hain justu ere. Artzain ibili zen lehenengo urteetan eta Kaliforniatik Idaho estatura, Boiserara, etxez aldatu zen gero. Laneko ezbehar larri bat izan zuen, eta ezinduta gelditu zen. Ondorioz, gurpildun aulkian egin ditu bizitzako urte asko.

Boisen, Oinkari Dantza Taldean hasi zen Juan Jose, pandero-jotzaile. Jimmy Jausoro soinu-jotzailearekin batera ibili zen urtetan Oinkari Dantza Taldean, eta bistan da arrasto sakona laga duela bai dantza taldean eta baita Boiseko euskal diasporan ere. Juan Jose otsailaren 18n hil zen, koloneko minbiziarekin.



Motxaila Eguna ospatuko dute bihar, hilak 9, Mendaron

Azken urteotako usadioari jarraituz, Motxaila Eguna ospatuko dute bihar Mendaron. Egun osoko egitaraua prestatu du Mendaroko ezker abertzaleak. 12:00etan, Aitzbeltz kobazuloan batuko dira hala nahi duten guztiak, eta kobazulo barrua bisitatu ostean, hainbat ekintza egingo dituzte. Ipuin kontaketak, mitinak, bertsoak, musika... ez da ezer faltako. Ondoren, 15:30ean elkarrekin bazkaltzeko batuko dira Gaztetxean. Menua honako hau izango da: sarrerakoak, lapikokoa, eta ijito-besoa edo *brazojitanao*. Bazkalosterako Inozentzio klownaren ikuskizuna eta bertso saioa antolatu dituzte, eta ondoren bertso poteoan irtengo dira Alaia Martin, Aitzol Barandiaran eta Iñaki Gurrutxaga bertsoarietarekin. Gauean, berriz, erromeria izango da Gaztetxean, Honat taldearekin.



Garagartza kaleko obrak luzatu egingo direla ohartarazi du Udalak



Hornidura sarea birmoldatzeko obrak direla eta, Garagartza kalea hilabeterako itxi zuten otsailaren 25ean, 13-16 portalen artean, baina Mendaroko Udalak jakinarazi du luzatu egingo direla obrak. Berez, bi egiteko zituzten. Batetik, 16. portalari dagokion eraikina eraistea, eta bestetik, Ur Zerbitzuak-eko hornikuntza sarea berritzea, baina lanean hasi eta bat, espero ez zutenarekin egin dute topo: eraitsi asmo duten eraikina bota aurretik, argindarraren bigarren linea hirugarren lineara lotu behar dute, eta horretarako lurrean metro beteko zanga egitea eskatzen du Iberdrolak. Horregatik, Garagartza kalea 22. zenbakia- ren parean zeharkatu behar da. Hori dela eta, sor- tu daitezkeen eragozpenak ulertzeko eskatu die Udalak kale horretan bizi direnei.

CD Elgoibarko nesken taldeak eskura dauka liga txapelketa

Ostadar taldearen kontra jokatuko dute bihar Mintxetan, bigarren sailkatuaren kontra



Hiru partida falta dira nesken futbol liga txapelketa amaitzeko, eta CD Elgoibarko taldea lider dago, Ostadar bigarren taldearekin berdinduta. Mutriku dago hirugarren, bi puntura. Liga amaiera hau nola aurreikusten duten kontatu diote BARRIENI Ane Izeta eta Mireia Huidobro CD Elgoibarko jokalariek.

Hiru partida, hiru final

“Hiru partida falta zaizkigu, hiru final”, esan dute. Bihar eguerdian Ostadar bigarren sailkatuaren kontra jokatuko dute Mintxetan, eta datorren astean Mutriku jokatuko dute, hirugarren sailkatuaren kontra. Bi partida horiek irabazita, liga txapelketa irabazi eta mailaz igotzea lortuko lukete, azken partida galdu arren. “Zaila da, baina posible ikusten dugu”, adierazi dute. “Gure esku dago”, diote, eta gainera, talde indartsuen kontra hobeto jokatzen dutela nabarmendu dute. “Hazi egiten gara handien kontra, eta sailkapenean atzean daudenekin, al-diz, burua galtzen dugu askotan, eta gauzak ez zaizkigu ondo ateratzen”.

Talde bakarra igoko da mailaz; beraz, liga irabaztea ezinbestekoa izango da. Azken txanpa honi aurre egiteko zaleen babesa eskatu dute, eta bihar Mintxetara joateko deia egin diete herritarrei. “Kanpotik jende gehiago etortzen da beste taldea animatzera”, esan dute.

Neska talde baten ilusioa

Urtebeteko etenaldiaren ostean, neska talde baten ilusioz sortu zuten berriro nesken futbol taldea iazko denboraldian.

“Klubeko zuzendaritzak ez gaitu kontuan hartzen, eta nesken taldea baldin badago gure lanari esker izan da”, esan dute haserre. Ligan ez ziren fin ibili iaz, baina Kopa Txapelketa irabazi zuten, eta horixe izan zen CD Elgoibarrek eskuratu zuen garaikur bakarra: “Hala ere, inork ez gintuen zoriondu”.

Jokalari berriak

18 jokalarri daude taldean, baina lanagatik edo lesioengatik, zenbait partidetara hamaikako justuarekin ere joan izan dira. Hori dela eta, jokalarri berriak aurkitu nahi dituzte Euskal Ligan jokatzeke. Talde giro bikaina dutela diote, eta futboleko jokatzeke ilusioa duten neskak behar dituzte. Gazteenak 14 urte ditu eta zaharrenek 30. Hain justu ere, emaitza onak lortzeko giltza talde-giro on hori dela diote biek aho batez. Mailaz igoz gero, Euskal Ligan jokatuko lukete datorren urtean. “Badakigu maila horretan gauzak askoz zailagoak izango direla, eta seguruenik partida guztiak galduko ditugula, baina askotan hobe izaten da onenen artean txarrena izatea, txarrenen artean onena izatea baino”.

Norbaitek nesken futbol taldean jokatu nahi balu: 943 741 949 telefonora deitu edo cde@cdelgoibar.com helbidera idatzi dezake.

20 elgoibartarrek eta 12 mendarorrek hartu dute parte Lilatoian

2.700 lagunek bukatu zuten proba

Eguraldi eguzkitsua lagun, partaidetza-muga guztiak gainditu ditu domekan Donostian jokatu zen Lilatoian; emakumeak kirola egitera animatzeko helburuarekin, orain 24 urte sortu zuten lasterketak. Aurten, iaz baino 700 korrikalari gehiagok parte hartu dute, eta 2.700 partaidek lortu zuten proba amaitzea. Horien artean, 20 elgoibartar eta 12 mendaror. Iaz moduan, Pilar Arriola izan zen lehen elgoibartarra (00:21:46) eta bere ahizpa Junkal izan zen bigarren elgoibartarra. Sailkapen nagusiko 47. eta 51. postuetan sailkatu ziren, hurrenez hurren. Irene Elorza izan zen lehen mendarorra eta 27:55 minutu behar izan zituen honek proba amaitzeko.



Elgoibartarrak

47. Pilar Arriola	21:46
51. Junkal Arriola	21:50
81. Idoia Oiarzabal	22:35
100. Lourdes San Martin	23:00
244. Andrea Arriola	25:38
266. Eider Iriondo	25:51
973. Eneritz Gonzalez	29:58
1.229. Ainhoa Etxeberria	31:07
1.231. Julia Quintana	31:07
1.849. Jone Olaizola	33:21
1.946. Inma Mugertza	33:45
2.155. Marian Arriola	34:37
2.161. Mapi Fernandez	34:38
2.216. Mari Jose San Juan	34:56
2.287. Ainara De Pedro	35:28
2.288. Judith Zabala	35:38
2.289. Elixabeth Benito	35:28
2.290. Ioana Astigarraga	35:38
2.301. Susana Azpilikueta	35:29

Mendarorrek

567. Irene Elorza	27:55
568. Virginia Santamarta	27:55
784. Idoia Larrañaga	29:02
876. Marimar Cebrian	29:35
1.134. Nerea Larrañaga	30:44
1.136. Maitane Tejero	30:44
1.354. Anto Gallastegi	31:17
1.683. Joana Salgado	32:42
2.084. Olatz Urbieto	34:18
2.085. Izaskun Loiola	34:18
2.086. Janire Loiola	34:18
2.498. Sonia Benito	36:47

Pilota Eguna ospatuko dute bihar



Elgoibar Ikastolak Pilota Eguna antolatu du biharko, Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzako. 10:30ean hasiko dira partidak, eta eguerdian banatuko dituzte sariak. Antolatzaileek Kalegoen plazan egitea aurreikusi dute, baina euria eginez gero, ikastolako frontoian jokatuko dituzte partida guztiak.

Aste Santuko Kirol Campusean izena emateko epea hilaren 15ean amaituko da

Kirol Campusa antolatu du aurten ere Kirol Patronatuak Aste Santurako, eta datorren barixakuan amaituko da izena emateko epea. 1999. eta 2005. urteen artean jaiotako umeek hartu dezakete parte. Martxoaren 25, 26, 27 eta apirilaren 2, 3, 4, eta 5ean egingo dituzte saioak, eta parte hartzen duten umeek hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute. Besteak beste, futbola, tenisa, padela, saskibaloia edota atletismoa izango dituzte aukeran. Kirol Patronatuko bazkideek 50 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 55 euro. Olai-zaga kiroldegian bertan eman behar da izena.

Concepto Egile areto futbol taldea historia egiten ari da

Liga amaitzeko zazpi partidaren faltan lider dira



Concepto Egile areto futbol taldea historia egiten ari da. Bigarren B mailari eusteko helburuarekin hasi zuten denboraldia, baina orain, liga txapelketa eta lehen mailarako igoera fasea esku-eskura dituzte. Hamasei partida irabazi eta bat berdindu dute orain arte, eta oraindik ez dute norgehiagoka bat bera ere galdu. Jose Ramon Iriarte Debabarrena CDko presidenteak emandako datuen arabera, Espainiako kirol desberdinak kontuan hartuta (Futbol Liga, saskibaloia, eskubaloia, errugbia eta areto futbol), bi talde bakarrik daude oraindik partidarik galdu gabe: Lehen mailako Bartzelona eskubaloi taldea eta Concepto Egile taldea.

Zazpi jardunaldi falta dira liga amaitzeko, eta elgoibartarrak sailkapen nagusiko lehen postuan daude. Joan zen asteburuan, gainera, Zierbena bigarren sailkatuak galdu egin zuen, eta bederatzia puntuko aldea dute. Bihar Olaizaga kiroldegian jokatu dute, Labastida taldearen kontra.

Iñigo Larizek irabazi du Zuzenien lasterketa

Domekan hasi zen Euskal Herriko Kilo metro Bertikalen zirkuitoa Azpeitin, eta eskiekin nahiz eskirik gabe, ondo baino hobeto moldatzen dela erakutsi zuen Iñigo Lariz elgoibartarrak. 31 minutu behar izan zituen Azpeititik Xoxotera arteko bidea egiteko, eta bera izan zen helmugan azkarrena. Ezkerretegi base-riaren aurretik irten eta 2.800 metroko bide maldatsua igo ondoren, Izarraitze- ra, Xoxoteko San Inazioen irudiaren on- doraino igo behar zuten parte hartzaile- ek, 804 metroko desnibela gaindituz. Bigarren sailkatua Oier Ariznabarreta (00:31:31) izan zen, eta Imanol Goñik (00:31:40) hirugarren egin zuen. Aitor Osoro eta Iñigo Ortuoste elgoibartarrak



ere hartu zuten parte, eta 39:03 eta 39:04 denborak egin zituzten, hurrenez hurren. Guztira, 132 lagunek hartu dute parte aurtengo edizioan, iaz baino 35 gutxiagok.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Gernika 3 (3. maila)
 Elgoibar 0 – Ordizia 1 (Erreg.)
 Antigua 0 – Elgoibar 2 (Neskak)
 Touring 1 – Elgoibar 1 (Jub.)
 Elgoibar 6 – Ordizia 4 (Kad. A)
 Kostkas 3 – Elgoibar 2 (Kad. B)
 Elgoibar 4 – Lazkao 2 (Ohorezko inf.)
 Zumaiako 2 – Elgoibar 1 (Inf. txiki)
 Elgoibar 0 – Aretxabaleta 1 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Quinto 5 – Concepto Egile 6 (2B)

ESKUBALOIA

Ardoi 25 – Alcorta Elg. 25 (Sen. mut.)
 Tecnifuelle Elg. 33 – Jarilleras 25 (Sen. nesk.)
 Gabaz Elg. 34 – Urnietako 21 (Sen. mut.)
 Lauko Elg. 41 – Urduliz 7 (Jub. nesk.)
 Astigarraga Elg. 24 – Bera Bera 26 (Kad. nesk.)
 Bankoa Elg. 26 – Eibar 23 (Inf. mut.)
 Aloña Mendi 44 – Deca Elg. 23 (Inf. mut.)
 Murgil Elg. 35 – Murgil 15 (Inf. nesk.)
 Cometel Elg. 18 – Aterpe Elg. 16 (Inf. nesk.)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Lagunak 25 – Alde Zaharra 19 (Pala 2. maila nag.)

Debarroko Txapelketa

Lagunak 14 – Euskal Jolas 22 (Kad.)
 Lagunak 22 – Euskal Jolas 4 (Jub.)
 Eskoriatza 13 – Lagunak 22 (Kad.)
 Soraluze 22 – Lagunak 21 (Jub.)
 Lagunak 22 – Eibar 8 (Jub.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 9

12:40 Elgoibar – Ostadar (Neskak)

11:15 Elgoibar – Aretxabaleta (Ohorezko inf.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 9

19:30 Concepto Egile – Atenea (2B)

Domeka, 10

10:45 King Kong – Noto (Jub.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 9

9:45 Deca Elg. – Eibar C (Inf. mut.)

11:00 Pneumax Elg. – Arrasate (Kad. mut.)

12:30 Beristain Elg. – Usurbil (Jub. mut.)

16:00 Astigarraga Elg. – Usurbil (Kad. nesk.)

17:30 Lauko Elg. – Ermua (Jub. nesk.)

Domeka, 10

9:30 Alkideba Elg. – Tolosa (Aleb. mut.)

ESKU PILOTA

Barxakua, 8

21:30 Lagunak – Alzatarra (Pala 2. maila nag.)

SASKIBALOIA (Kiroldegian)

Domeka, 10

12:15 Viento Sur – Orioko (Sen. mut.)

XABIER SOLANO

Musikaria



Elgoibarko Izarraren 50. urteurreneko jaietan hartuko du parte Xabier Solano Esne Beltzako abeslari eta soinu-joleak, taldeko DJarekin. ‘Merezi Zaban’ asteburua prestatu du elkarteak martxoaren 15 eta 16rako, eta zapatu gaua alaitzera etorriko da Esne Beltza taldeko bikotea.

“Euskara elkarteek egiteko garrantzitsua betetzen dute egungo gizartean”

Zergatik Esne Beltza izena?

Hasiera batean ska, reggae, eta soul estiloak landu genituen; hau da, zuriak eginiko musika beltza. Zuri-beltz kontraste hori islatzen du Esne Beltza izenak.

Nola definituko zenuke Esne Beltzak egiten duen musika?

Musika multikulturala egiten dugula esango nuke. Herrialde desberdinetako musika egiten dugu, baina nondik gatozen ahaztu gabe. Trikitia ere badaukagu taldean, eta Euskal Herri-tik kanpora joaten garenean saiatzen gara hemengo estiloa erakusten. Folk mundukoa izango balitz bezala hartzen dute trikitia leku askotan, baina nik uste dut herrikoia dela. Musika estilo asko gustatzen zaizkit niri; ondo eginda baldin badago, edozer entzuten dut.

Elgoibarko Izarra kultur elkartearen 50. urteurreneko jaialdian hartuko duzue parte. Zer eskainiko duzue?

Nire ibilbideko abestiak apur bat moldatuta eskainiko ditugu. Biko formatoan etorriko gara, DJa eta ni, eta soundsystem moduan eskainiko dugu kontzertua. Hasieran abesti lasai batzuk eskainiko ditugu eta gero jendea dantzan jartzen ahaleginduko gara. Azkenaldian formato horretan eman izan ditugu kontzertuak eta gustatzen zaigu. Estreinakoa Elgoibarren eman ge-

nuen, Gaztetxean. Momentu berezietan erabiltzen dugu formato hori. Ekitadi hau euskararen aldeko jaialdi bat zela esan zidaten, eta ideia oso ona iruditu zitzaigun. Euskaingintzan erabat murgilduta gaude. Musikarekin egiten dugun bezala, hizkuntze-kin ere jolasten dugu, baina gurea euskara dela ahaztu gabe.

Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?

Ni euskaraz bizi naiz erabat, eta nire familiakoak ere bai. Irakaslea naiz Oiartzunen eta han ere asko egiten da euskaraz, baina hiriburuetan galdu egiten da. Euskaraz dakiten asko gaztelaniaz hizketan entzuten dira. Hernanin bertan ere, sagardotegi garaian gaztelania asko entzuten da.

Zer iruditzen zaizu egungo gizartean euskara elkarteek betetzen duten papera?

Funtsezkoa da. Elgoibarko euskara elkarteak 50 urte bete izana gauza handia da. Euskara elkarteak ahalegin handia egiten ari dira euskara indartzeko eta egiteko garrantzitsua betetzen dute egungo gizartean. Euskaraz bizi nahi dut kanpaina edota Korrika bezalako ekintzak beharrezkoak dira euskarari bultzada emateko. Egiten dena asko da, baina ez da nahikoa, eta gehiago egin behar dela iruditzen zait. Lan horretan euskara elkarteak ezinbestekoak dira.

Gaur zortzi hasiko ditu Elgoibarko Izarra kultur elkarteak 50. urtemugako ospakizunak

Zapatuko herri bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko

Jai giroan ospatuko du Elgoibarko Izarrak 50. urteurrena. Gaur zortzi, hilaren 15ean, hasiko dira ospakizunak, Herriko Antzokian egingo den ekitaldiarekin (20:00). Ekitaldian Elgoibarko Izarrako sortzaileak eta presidente guztiak igoaraziko dituzte oholtzara, 50. urteotan Elgoibar euskaldunagoa izateko egindako lanaren errekonozimendutzat. Ordu bete pasatxoko ekitaldia izango dela aurreikusten dute antolatzaileek, baina ez da hor amaituko egunekoa. Maalako karpan jarraituko du ospakizunak. 21:30ak aldera zabalduko dute karpa, eta ondoren, afari-luntxa egongo da hara batzen diren guztientzat. Afalostea, herriko musikariek girotuko dute.

Zapatuan ere izango da zertaz gozatu. 14:30ean herri bazkaria egingo da karpan. Helduentzako eta umeentzako menua egongo da aukeran, eta bazkaritarako tike-tak Elgoibarko Izarraren bulegoan, BARRENEN edo www.elgoibarkoizarra.com atarian eskura daitezke. Bazkalosterako (15:30etik aurrera), haurrentzako ginkana antolatu dute, eta arratsalde partean, 18:00etatik au-



Elgoibarko Izarrako langile talde bat ospakizunerako prestakuntza lanetan.

rrera, erromeria izango da Ezten Giro taldearekin. Tartean, Atxutxi-kantua ere abestuko dute han bildutako guztiak. Atxutxiarikako hezitzaileek idatzi dute kantuaren letra eta Aitor Nova musikariak jarri dio musika. Erromeria amaitutakoan, eta indarrak hartze aldera, ogitartekoak salduko dituzte

karpako txosnan, eta ondoren, karpan batutako guztiak dantzan jarriko dituzte Xabier Solano eta DZK (Esne Beltza). Era berean, zapatuan karpa zabalitzen duten unetik ixten duten arte, Elgoibarko Izarrari buruzko argazki erakusketa ikusteko aukera izango da karpan.

Auresku eta Soinu Zahar Txapelketa Elgoibarren jokatu dute asteburuan

Elgoibarko Herriko Antzokian jokatu dute Auresku eta Soinu Zahar Txapelketa asteburu honetan, eta guztira, 11 elgoibartarrek parte hartuko dute: Gaizka Uranga, Eneko Gonzalez, Leire Astigarraga, Amaia Astigarraga, Alaitz Egaña, Irati Marcos, Ohiane Agirrebeña, Ainhoa Gomez, Saioa Marcos, Nerea Sasiain eta Maialen Loiola.

Zapatuan dantzatu dute mutilek eta A mailako neskek, 16:15etatik aurrera, eta domekan izango da gainerrakoen txanda. Domekako saioa goizez izango da, 11:00etan.



'Hil arte bizi' antzezlanak ikusteko aukera izango da gaur Mendaron

Txalo produkzioak taldeak *Hil arte bizi* antzezlanak taularatuko du gaur Mendaroko San Agustin antzokian, 22:00etatik aurrera. Javier Veigaren *Amigos hasta la muerte* testua euskaratuz sortu du Txalo konpainiak *Hil arte bizi* antzezlanak. Adiskidetasunari eta heriotzari buruzko tragikomedia da, eta Iker Galartza, Sara Cozar eta Joseba Usabiaga aktoreek ematen diote bizi. Sarrerak salgai daude dagoeneko Morroskillo dendan eta Aitz-Beltz tabernan, zortzi euroan. Takilan, hamar euroan salduko dituzte.

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekitaldi izango dira gaurtik igandera bitartean

Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko manifestazioa antolatu dute gaurko

Martxoak 8 da gaur, Emakumeen Nazioarteko Eguna, eta horren aitzakian hainbat ekintza antolatu dituzte Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak, Haizea emakume taldeak eta Emakumeen Asanbladak. Emakumeen eskubideen alde egiteko, urtean 365 egun daudela aldarrikatuko dute gaur bateko eta besteko emakume taldeek, besteetan baino ozenago.

Emakume artisten erakusketarekin hasi zituzten martxoaren 8aren harira antolatutako ekintzak, eta martxoaren 22an Loredi Salegik gidatuko duen zine-forumarekin bukatuko dituzte. *Pago justo* filma ikusiko dute Kultur Etxean.

Gaurko ere badira gauzak, baina. Hasteko, 18:00etan, irakurtaldi feministez gozatzeko aukera izango da Kalegoen plazan. Astelehenean hasi zituen Elgoibarko Emakumeen Asanbladak irakurketa feministak eta egunean orduerdiz aukeratutako testuak irakurri dituzte hainbat lagunek. Gaur da azkeneko eguna. 20:30ean, berriz, *Gorda* antzezlanak ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian.

Bihar goizerako emakumeentzako dantza tailerra antolatu dute Kultur Etxeko sotoan. 12:00etan hasiko da tailerra, eta gero, aurrez izena emandakoek bazkaria egingo dute Sigma jatetxean. Gauerako gau-fest-minista antolatu du Emakumeen Asanbladak. Gaztetxean izango da, eta antzerkia, musika... denetarik egongo da. Aurrez, baina, Kalegoen plazan hasita manifestazioa egingo dute Gaztetxeraino (20:00). Antolatzaileek eltzeak, txistuak eta zarata egiteko balio duen edozer eramateko eskatu dute, eta baita festarako gogoz joatea ere. Domekan, bideo emanaldia izango da Gaztetxean. *Sans toi ni loi* filma ikusiko dute, 18:00etatik aurrera. Domeka honetan itxiko dute, era berean, asteazkenaz geroztik Gaztelekuan ikusgai egon den erakusketa.



Arg.: Aitor



Goian, emakume artisten erakusketa inauguratu zuten uneko argazkia, eta behean, martitzenean egin zuten irakurketa feministakoa.



Balenciaga Museoan joko du gaur Napoka Iriak, Julieta Venegasen aurretik

Napoka Iriak taldeak, Ander Mujika elgoibartarrak eta Miren Narbaiza eibartarrak osatutako bikoteak, zabalduko dio bidea Julieta Venegas abeslari mexikarrari gaur Getariako Balenciaga Museoan eskainiko duen kontzertuan. Venegas *Los Momentos* diskoa aurkezteko biran dago, eta Emakumearen Egunaren harira gonbidatu du Balenciaga Museoak. Kontzertua 20:30ean hasiko da, eta sarrerak www.kutxasarrerak.net helbidean eskuratu daitezke. *Los Momentos* diskoa Mexiko hirian grabatu zuen Venegasak, iaz, Yamil Rezc-ek ekoiztetxearekin.

LANA.....

Eskaera

- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka, gauzez nahiz asteburuetan. ☎ **680 121 252**
- Neska gaztea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ **648 505 256**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka nahiz asteburuetan. ☎ **609 842 165**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak. ☎ **606 118 964**
- Emakumea lan bila: nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **943 257 605**
- Gizonezkoa lan bila. Ospitalean pertsona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. Berehalan lanean hasteko prest. ☎ **688 812 845**
- Emakume elgoibartarra nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Goizez, arratsaldez edo orduka. ☎ **660 551 781**
- Adinekoak edo umeak zaintzen edota garbitzen egingo nuke lan. Astelehenetik barixakura, interna nahiz orduka. ☎ **646 143 287**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. Esperientziaduna. ☎ **660 113 373**
- Emakumea lan bila. Etxeko lanak egiteko, sukalde laguntzaile aritzeko edo umeak zein nagusiak zaintzeko prest. ☎ **638 884 104**
- Esperientziadun mutila zerbitzari lanetarako prest. Ordu-tegi malgua. ☎ **692 332 871**
- Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako lanetarako prest. Ordu-tegi malgua. ☎ **686 052 084**

- Bi neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaintzen edo garbiketarako lanetan egingo genduko lan. Esperientzia eta gomendioak ditugu. ☎ **625 895 460 (Carmen) / 638 835 824 (Oneida)**
 - Emakumea lan bila. ☎ **628 647 809 (Margarita Morales)**
 - Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko prest. Etxean nahiz tabernan, gauzez edo egunez. ☎ **689 436 454**
 - Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko prest. Goizez, jardunaldi erdiz, edo gauzez, 22:00etatik aurrera. ☎ **632 143 239 / 628 738 472**
 - Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edo adinekoei konpainia egiteko. Ordu-tegi malgua. Asteburuetan ere bai. ☎ **618 814 064**
 - Emakumea eskaintzen da umeak nahiz nagusiak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko. Orduka. ☎ **605 720 298**
 - LHko edo DBHko klase partikularrak ematea gustatuko litzaidake. ☎ **637 010 168**
- ETXEBIZITZAK.....**
- 30 urteko mutila pisua eta pisukide bila dabil. Aukeran nahiago du pisukide emakumezkoa. ☎ **650 015 311**
 - Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **686 052 084**
 - Etxea alokatzen dut Errosario kalean. ☎ **639 353 331**

- Etxea salgai Amaña auzoan (Eibar). Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa eta balkoi itxia. Altzariekin eta margotu berria. 90.000 euro (15 milioi pezeta). Ahal den azkarren saltzeko premia. ☎ **652 716 564 / 943 742 962**

KINTOAK.....

- 1977koek bazkaria egingo dute martxoaren 16an. Maalako parkean batuko dira 13:00etan. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte Kutxako kontu korronte honetan: 2101 0036 64 0013146055

BESTELAKOAK.....

- Martxoan hiru hilabete beteko dituen katuxoa oparituko nioke ondo zaintzeko prest dagoenari. ☎ **943 740 687**
- Sukalderako egurrezko mahai berria salgai. 120x80cm neurrikoa. Luzatu egiten da. ☎ **943 748 864**
- Ezkontza eraztuna galdu dut, Karkizaotik Maalara bitartean. Estimatu handikoa. ☎ **943 741 164**
- Joan zen domekan, hilak 17, Altus Alpine markako hiru bastoi ahaztu zitzaizkigun Aitolako aparkalekuan (Madariagan). Norbaitek aurkitu baditu, deitu mesedez. ☎ **658 729 032**
- Eraztuna galdu dut San Roke 32 inguruan. Estimatu handitan nuen. Aurkitu duenak deitu dezala, mesedez. ☎ **688 686 494**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.


- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

I. URTEURRENA

**GLORIA MAIZTEGI
AGIRREGOMEZKORTA**




2012ko martxoaren 12an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 9, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.





• Zorionak, **Ander**, asteartean 7 urte bete zenituelako. Familiakoen partez, bereziki Mikelen partez.



• Zorionak, **Iker**, martxoaren 4an 6 urte egin zenituelako. Muxuak etxekoan, eta bereziki, Oierren partez.



• Zorionak, **Maite**, zure bigarren urtebetetze egunean. Muxu potolo bat etxeko denon partez.



• Zorionak, **bitxo**, bihar 9 urte handi egingo dituzulako. Ondo pasa familiako guztion partez.



• Zorionak, **Junes**, 3 urte bete dituzulako. Prest ditugu kandelak iganderako! Muxu bat, Einerren partez.



• Zorionak, **Irati**, zure bederatzigarren urtebetetzean. Patxo bat etxekoan eta bereziki Urkoren partez.



• Zorionak, **Martin!** Gezurra dirudi 3 urte pasa direla. Patxo handi bat etxeko guztion partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Iuren!** 3 urte! Mutil handi! Ondo-ondo pasa! Muxu potolo bat!



• Zorionak, **Axier**, astelehenean 2 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat aita-txo, amatxo eta familia-koen partez.



• Zorionak, **Adel**, zure bederatzigarren urtebetetzean. Muxu handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak **Markel**, zure 6. urtebetetzean, etxekoan eta bereziki asko maite zaituen anaia Anderren partez. Muxu, eta ondo pasa.



• Zorionak, **Unax**, gaur ostirala 2 urtetxo egingo dituzulako. Muxu potolo bat, gurasoen eta Elaiaren partez.



• Zorionak, **Oinatz**, gaur 2 urtetxo beteko dituzulako. Patxo handi bat, eta ondo-ondo pasa, Jare eta Lukenen partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

8 barixakua

Antzerkia

20:30 'Gorda'

Txalo produkzioak antzerki taldeak aurkeztuko du Herriko Antzokian.

Antzerkia

22:00 'Hil arte bizi'

Txalo produkzioak antzerki taldeak aurkeztuko du Mendaron, San Agustin kulturgunean.

9 zapatua

Kirola

10:30 Pilota Eguna

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan. (Euria eginez gero, Ikastolan).

Hezkuntza

11:00 IMHko ingeniartzia eskolako informazio saioa IMHn.

Dantza

16:30 Elgoibarko aurreku eta soinu zahar txapelketa Herriko Antzokian.

10 domeka

Dantza

11:00 Elgoibarko aurreku eta soinu zahar txapelketa Herriko Antzokian.

14 eguena

Hitzaldia

19:30 'Bizi osorako espetxe zigorrik ez'

Parot Doktrinari buruzko hitzaldia eskainiko dute Ainhoa Baglieto abokatuak, Isidro Gabirondo, preso baten senideak eta Nagore Garcia Herrirako kideak.

15 barixakua

Jaialdia

18:30 Ikastolako urteen jaialdia Elgoibar Ikastolan.


Politika

20:00 Giza katea Parot doktrina salatzeke.

ZINEA

'Amour'

9, zapatua: 19:00/22:15
10, domeka: 19:00
11, astelehena: 21:30



'Blackie eta Kanuto'

10, domeka: 16:30



'De óxido y hueso'

(Ongarri zinekluba)
14, eguena: 21:30



OKINDEGIA

10 domeka:
FOTERO

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez
Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta
Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

8 Ibañez
9 Garitaonandia

10 Garitaonandia
11 Etxeberria
12 Fernandez
13 Yudego
14 Zabaleta
15 Barrenetxea

Gauetz

22:00 - 9:00

Etxeberria
Garitaonandia
Garitaonandia
Etxeberria
Yudego
Yudego
Barrenetxea
Barrenetxea



Martxoak 14 osteguna,
arratsaldeko 19:00etan
gurasoei zuzendutako
kafe tertulia Ludotekan.
Udalekuen inguruko
informazioa emango dugu.

Martxoaren 8an irakurtaldi
feministak entzutera eta
20:00etako kontzentraziara
joango gara. Martxoaren
10ean 'JUNO' filma
ikusiko dugu.





@AbianAzoka



www.facebook.com/
AbianDebabarrena

www.debegesa.com



Kontsultatu
egitaraua:
Hitzaldiak
jardunaldiak
...

lekua:

Armeria Eskolako patioan,
Eibar

data eta ordutegia:

Martxoak 14 eta 15
Osteguna eta Ostirala

10:00-14:00

16:00-19:00

Martxoak 16

Larunbata

10:00-14:00

SARRERA IREKIA

DEBABARRENEKO I. LANBIDE HEZIKETA AZOKA

#ABIAN

Armeria Eskola // BHI-IES Uni Eibar-Ermua // BHI-IES Mutriku // Debako Arte Eskola // Debegesa // E.U.I.T.I. Eibar
IEFPS Meka GLBHI // IMH - Makina Erremintaren Institutua // PCPI Eibar // PCPI Ermua-Mallabia // TKNIKA

Antolatzailea: **Debegesa**



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20
TEL.: 943 744 457
ELGOIBAR
www.textillagunak.com

ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK

ESKANTZA!!!

**Ercon etxeko mikrofibrazko
ohe azpiko kutxa (150 x 190)**

462 €

**Dalia etxeko koltxoia (150 x 190 x 24)
Biskoelastikoa + HR**

342 €

GORTINAK egiten dizkizugu
zure beharretara moldatuta

Aulki, besaulki, ohe-buruak ...
TAPIZATZEN ditugu.

Zuk zeuk tapizatu
nahi izanez gero,
hemen aurkituko duzu
behar duzun guztia!



VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit
inoiz ez dela berandu
irribarre polit bat
edukitzeko

Ortodontzian
espezialistak



RPS 49/12

EIBAR
San Juan kalea, 7
943 82 18 85